

Azaroaren 25eko Adierazpena. Testuinguruan jartzea

Azken urteotan egin izan den bezala, 'Azaroaren 25eko Adierazpena' **EUDEL**en eta **Emakunderen artean adosten da**, ondoren udalei bidaltzeko, udalerriko errealitate bakoitzera egokitu daitekeen **erreferentzia-eredu** gisa.

► **Eredua egiteko prozesua**



- 1.- EUDELeko Berdintasun Sailak edukien zirriborroa egiten du, eta Adierazpen Instituzionala izateko moldatzen da, Emakunderekin batera.
- 2.- Aipatutako testua **Berdinsareko Indarkeria Batzordeko** teknikariei bidaltzen zaie, eta horiek egiaztatu egiten dute. Batzordea honako udalerrri eta mankomunitate hauek osatzen dute: **Basauri, Bilbo, Donostia, Eibar, Erandio, Ermua, Gernika, Getxo, Ondarroa, Portugalete, Sestao, Uribe Kosta, Urola Garaia, Vitoria-Gasteiz eta Zarautzek.**
- 3.- Aipatutako Batzordeak egindako ekarpenetatik behin betiko testua egiten da, eta **EUDELeko Batzorde Eragilean** aurkezten da, onartu ondoren udaletara bidaltzeko.

► **Aurtengo Adierazpena**



Gai honen inguruan erantzun instituzionala hobetzeko **ondorio praktikoak** dituen Adierazpen Instituzionala egitea erabaki da, bi erakundeetatik sustatzen diren benetako prozesuei loturik.

Balorazio sistemak eta tokiko protokoloak

Horregatik, Emakundek eta EUDELek elkarrekin bultzatuta udalerrietan (eta gainerako euskal erakundeetan) lantzen ari diren balorazio-sistemak jasotzen ditu testuak, berdintasunaren eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako gaietan herri politikek nazioarteko itunetako eta Estatuko zein autonomia erkidegoetako araudietako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko asmoz.

Balorazioa egin ondoren, emakumeen aurkako indarkeriaren Arretarako **Erakunde Arteko Hitzarmenak** aldatzeko aukera aurreikusten da.

Gai nagusia: Istanbulerako Hitzarmena



Aurtengo Adierazpeneko ardatz nagusia Istanbulerako Hitzarmena (2011) da; izan ere, Europan **loteslea den lehenengo tresna** da, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, baita giza eskubideen urraketa larri horri aurre egiteko **irismen handieneko** nazioarteko ituna ere.

Espanian, 2014ko abuztuaren 1ean sartu zen indarrean, erakundeko kide diren gutxienez hamar estatuk berretsi ondoren, Hitzarmeneko 75. artikulua xedatzen duen bezala. Gaur egun, **herrialde** hauek berretsi dute Hitzarmena: Albania, Andorra, Austria, Bosnia eta Herzegovina, Danimarka, Italia, Montenegro, Portugal, Serbia, Espainia eta Turkiak. [Deskargatu Hitzarmena \(Europako Kontseiluaren esteka\)](#)